



ORIOK UDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2021eko otsailaren 25a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:50

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieta, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- 2020ko 4. hiruhileko berankortasun-txostenaren berri ematea.
- 2.- Otsailaren 11ko 44/2021 alkate-dekretuaren berri ematea. Dekretuak 2/2021 zenbakidun kreditu-aldaketa onartzen du, kreditua txertatzeko modalitatean.



- 3.- Onartzea, egoki bada, BPXPORT XXI SLU enpresari dirulaguntza ematea 2020ko martxoaren 13tik ekainaren 14ra COVID-19 pandemiaren ondorioz instalazioak ixteak ekarritako desoreka ekonomikoa konpentsatzeko.
- 4.- Onartzea, egoki bada, BPXPORT XXI SLU enpresako langileei ordaindu beharreko kontraprestazio ekonomikoa, 2020. eta 2021. urtetan lan-hitzarmen berria dela eta egindako soldata-egokitzapenaren ondorioz.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udal Musika Eskolako ikasketen tarifak, 2021-2022 ikasturterako.
- 6.- Onartzea, egoki bada, A-19 Botaleku areako kontzertazio-batzordearen, Gipuzkoako Urak Saren eta Orioko Udalaren artean izenpetu beharreko lankidetzak akordioa, Botalekuko ur-hornidura eta saneamendurako, eta alkateari ahalmena ematea lankidetzak akordioa izenpetzeko Orioko Udalaren izenean.
- 7.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- 2020KO 4. HIRUHILEKO BERANKORTASUN-TXOSTENAREN BERRI EMATEA.

Udalak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

2.- OTSAILAREN 11KO 44/2021 ALKATE-DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETUAK 2/2021 ZENBAKIDUN KREDITU-ALDAKETA ONARTZEN DU, KREDITUA TXERTATZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Otsailaren 11ko 44/2021 alkate-dekretuaren bidez onartutako 2/2021 espedientea kreditua txertatzeko modalitatean egina dago eta 2.139.697,67 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BPXPORT XXI SLU ENPRESARI DIRULAGUNTZA EMATEA 2020KO MARTXOAREN 13TIK EKAINAREN 14RA COVID-19 PANDEMIAREN ONDORIOZ INSTALAZIOAK IXTEAK EKARRITAKO DESOREKA EKONOMIKOA KONPENTSATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonaleko Batzordeak 2021eko otsailaren 23an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA BPXPORT XXI SLU enpresari 10.313,01 euroko dirulaguntza ematea 2020ko martxoaren 13tik ekainaren 14ra COVID-19 pandemiaren ondorioz instalazioak ixteak ekarritako desoreka ekonomikoa konpentsatzeko.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BPXPORT XXI SLU ENPRESAKO LANGILEEI ORDAINDU BEHARREKO KONTRAPRESTAZIO EKONOMIKOA, 2020. ETA 2021. URTETAN LAN-HITZARMEN BERRIA DELA-ETA EGINDAKO SOLDATA-EGOKITZAPENAREN ONDORIOZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonaleko Batzordeak 2021eko otsailaren 23an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA BPXPORT XXI SLU enpresako langileei ordaindu beharreko kontraprestazio ekonomikoa, 2020. eta 2021. urtetan lan-hitzarmen berria dela-eta egindako soldata-egokitzapenaren ondorioz.

- 2020. urteari dagokion kontraprestazio ekonomikoa 18.228,80 eurokoa da.
- 2021. urteari dagokion kontraprestazio ekonomikoa 37.186,75 eurokoa da.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL MUSIKA ESKOLAKO IKASKETEN TARIFAK, 2021-2022 IKASTURTERAKO.

Udalbatzarrak gai hauen berri jakiten du: Musika Eskolaren 2021-22 ikasturterako proposatutako tarifak eta tasa akademikoak murrizteko araudia.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonaleko Batzordeak 2021eko otsailaren 23an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA 2021-2022 ikasturterako Danbolin Musika Eskolako tarifei eta tasa akademikoak murrizteko araudiari, segidan azaltzen diren terminotan:

4.3. Orioko Udal Musika Eskolan egindako ikasketak

2021-22 ikasturtean aplikatuko diren tarifak hauek izango dira:



TARIFA BAKARRAK		EUROAK
a	Musika-mintzaira ikasleko (2. maila)	244
b	Instrumentu-ikasgaia ikasleko. 30 min. (2. eta 3. mailan)	335
c	Instrumentu-ikasgaia ikasleko. 40 min. (2. eta 3. mailan)	371
d	Musika-tailerra ikasleko (1. mailan; 1. eta 2. ikasturteak)	120
e	Musika-tailerra ikasleko (1. mailan; 3. ikasturtea)	178
f	Musika-mintzaira (2. maila)	244
g	Ikasketa osagarriak (3. mailan)	244
h	Bigarren instrumentua ikasleko (2. eta 3. mailan)	641
i	Euskal dantza ikasleko	244
j	Euskal dantza ikasleko (beste instrumentu batean ere matrikulatua egonez gero)	244
k	Musika-instrumentuen alokairua (etxera eramanda)	114
l	Musika-instrumentuen alokairua (musika eskolan)	65
m	Instrumentu-taldea ikasleko	70
n	Instrumentu-taldea ikasleko (beste ikasgai batean ere matrikulatuta egonez gero)	Doan

HOBARIAK 2021-22 IKASTURTEKO TASETAN

Baldintzak

Goian adierazitako tarifaren zergadunek hobariak izango dituzte, beren egoera ekonomiko-familiarraren arabera, Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin (LGS) zuzenean lotuta eta bi zirkunstantzia hauekin ponderatuta:

- Familiaren etxebizitzan bizi diren eta errolatuta dauden pertsonen kopurua.



- Familia-unitatea osatzen duten kide guztien diru-sarreraren kopurua, Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin alderatuta.

Hori guztia, taula honen arabera:

FAMILIA-UNITATEAREN KIDE-KOPURUA	URTEKO SOLDATA, LANBIDE ARTEKO GUTXIENEO SOLDATAREKIKO ERLAZIOAN						
	LGS edo <	LGS + %10	LGS + %20	LGS + %30	LGS + %40	LGS + %50	LGS + %60
1-2	%90	%75	%50	%25	-	-	-
3	%90	%90	%75	%50	%25	-	-
4	%95	90%	%90	%75	%50	25%	-
5	%95	90%	%90	%90	%75	50%	%25
6	%95	90%	%90	%90	%90	%75	%50
7...	%95	90%	%90	%90	%90	%90	%75

Hobariak eskatzeko alde zuzeneko baldintzak hauek dira:

- Orion erroldatuta egotea 2021eko urtarrilaren 1a baino lehenagotik.
- Udalarekin zorrik ez izatea.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Nortasun-agiriaren kopia.
- Familia-liburuaren kopia.
- Errenta-aitorpenaren kopia (kide aktibo guztiena)
- Errolda-agiria.
- Elkarbizitza-agiria.

OHARRA: Tasa-murrizketaren onura jasotzen duen ikasleak ondo aprobetxatu behar du ikasturtea. Hala ez balitz, hurrengo urtean ez zaio emango, berriro eskatzen badu.

2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan iragarkiari argitaratuz, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dauden tokia: Udaletxeko idazkaritzan.



b) Espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita; betiere, bulego-orduetan.

c) Erreklamazioa aurkez dezaketena: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, A-19 BOTALEKU AREAKO KONTZERTAZIO-BATZORDEAREN, GIPUZKOAKO URAK SA-REN ETA ORIOKO UDALAREN ARTEAN IZENPETU BEHARREKO LANKIDETZA-AKORDIOA, BOTALEKUKO UR-HORNIDURA ETA SANEAMENDURAKO, ETA ALKATEARI AHALMENA EMATEA LANKIDETZA-AKORDIOA IZENPETZEKO ORIOKO UDALAREN IZENEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza Batzordeak 2020ko azaroaren 2an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- ONARTZEA A-19 Botaleku areako kontzertazio-batzordearen, Gipuzkoako Urak Saren eta Orioko Udalaren artean izenpetu beharreko lankidetzakordioa, Botalekuko ur-hornidura eta saneamendurako.

2.- AHALMENA EMATEA alkateari lankidetzakordio hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.

7.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,